
Euskadiko Parke Teknologikoak CIC biomaGUNEren, Donostian dagoen Europako laborategi aurreratuenetakoaren, Irudi Molekular eta Funtzionaleko Unitatearen ateak ireki dizkio gizarteari

- **Bigarren urtez jarraian, Euskadiko Parke Teknologikoak ate irekien jardunaldi bat antolatu du Donostia Campusean dagoen instalazio horretan, APTEk Estatuko Azpiegitura Zientifiko eta Tekniko Bereziak (AZTB-ICTS) ezagutzeko bultzatutako "Berrikuntza Guneak" ekimenaren barruan.**
- **Bisita gidatuak azaroaren 13an (osteguna) eta 14an (ostirala) egingo dira, 10:00etatik 11:30era, eta European irudi aurreklinikoaren esparruan erreferentziazko instalazio hori ezagutzeko interesa duen edonorentzat egongo dira zabalik, aldez aurretik izena emanda.**

2025eko urriaren 30a. Euskadiko Parke Teknologikoak aukera emango dio, berriro ere, zientzian interesa duen edonori, Donostia Campusean dagoen Estatuko azpiegitura zientifiko aurreratuenetako bat deskubritzeko. Irudi aurreklinikoaren arloan Europa mailan erreferentziazko laborategia den CIC biomaGUNEren Irudi Molekular eta Funtzionalaren Unitatea da, eta bi bisita gidatu egingo dira azaroaren 13an eta 14an, Espainiako Parke Zientifiko eta Teknologikoen Elkarteak (APTE) bultzatutako *Berrikuntza Guneak* ekimenaren parte gisa.

Ate irekien jardunaldi horien helburua da gizarteak zuzenean ezagutzea gizartearen eta gizakien garapenean eragin erabakigarria duten Estatuko Azpiegitura Zientifiko eta Tekniko Bereziaren (AZTB-ICTS) egiten den abangoardiako lana. Horrekin, gainera, indartu eta ikusarazi egiten da Euskadiko Parke Teknologikoak dibulgazio zientifikoarekin duen konpromiso estrategikoa.

CIC biomaGUNEren Irudi Molekular eta Funtzionaleko Unitatearen kasuan, ate irekien jardunaldira doazen pertsonak esparru zientifikoan bakarrak diren zenbait espazio ezagutuko dituzte –modu erabat seguruan–: isotopo erradioaktiboak

sortzen dituen ziklotroia; isotopoak molekulekin edo nanopartikulekin lotzen dituzten modulu automatizatuak; eta *in vivo* azterketa preklinikoak egiten diren irudi molekularreko, X izpien tomografiako eta erresonantzia magnetikoko ekipaok. Horrela, oso modu didaktikoan, gizakiengan saiakuntza klinikoetara iritsi aurretik konposatu berriak nola aztertzen diren eta osasunean eta bioteknologian aurrera egiteko kimika, biologia eta fisika nola uztartzen diren ikusiko dute.

Nabarmentzekoa da CIC biomaGUNEren Irudi Molekular eta Funtzionalaren Unitatea, bere teknika esperimentalen baturarengatik –Erradiokimika, Positroien Emisio bidezko Tomografia (PET), fotoi bakarraren emisio bidezko tomografia konputarizatua (SPECT), tomografia konputarizatua (CT), erresonantzia magnetikoaren bidezko irudia (MRI) eta tomografia optikoa (OT)– orain arte sortu den irudi biomedikoaren plataforma teknologiko handiena dela, ez bakarrik EAEn, baita Estatuan ere, eta funtsean biomedikuntzan nanomaterialen aplikazio berriak garatzera bideratuta dagoela.

Bisita gidatuetara joan ahal izateko lekua erreserbatu behar da www.parke.eus webgunean dagoen [inprimaki](#) baten bidez. Bisita 10:00etan hasiko da, CIC biomaGUNEren instalazioetan (Miramon pasealekua 194, 20014 Donostia), eta ordu eta erdiko iraupena izango du.

CIC biomaGUNEk abangoardiako ikerketa egiten du kimikaren, biologiaren eta fisikaren arteko interfazean, arreta berezia jarriz eskala molekularreko nanoegitura biologikoen propietateen eta horien aplikazio biomedikoen azterketan. 18 urteko ibilbidean, CIC biomaGUNE puntako zentro gisa finkatu da estatuko eta nazioarteko zientzia-panoraman biomaterialen arloan ezagutza sortzeko eragile gisa. Horren ondorioz, argitalpen zientifikoak, patenteak, nazioarteko erakunde eta instituzioekiko lankidetzak eta ekipamendu teknologikoa eta langile zientifikoak komunitate zientifikoaren eta enpresa-ehunaren zerbitzura jartzea lortu du.

Informazio gehiago:

Euskadiko Parke Teknologikoa
Prentsa Saila
prentsa@parke.eus
T 94 403 95 00